

RENTE ERBESTETIK

Arrate Egaña

B

izitzak batzuetan haurtzaro eta lehen gaztaroa pasa genituen tokitik urrutira eramaten gaitu, nire kasuan ez oso urrutira, egia esateko; nahikoa, ordea, egunez eguneko herriko gertaerez ez jabetzeko. Eta horrek oroitzapen makina bat jartzen du martxan.

Haurtzaroa pertsonaren aberria dela zioen Rilke idazleak (eta, zahartu ahala, gaztaroa ere bai.) Baina denbora ez da ezer espaziorik gabe, eta haurtzaro galdua ezin dugu gaurkora hutsean ekarri, marko batean txertatuta ez bada; nire marko hori, hain zuzen, Rente da, edo Errenteria, edo Orereta, parean duzunaren arabera (herria plurala izan da beti, gustu guztietarako). Oroitzapenetan itsatsita geratu dena gauzatzen saiatzen naiz herrira etortzean: txokoak, usainak, etxeak, bideak, lagunak..., gustura berreskuratuko genituzkeen galdutako zera horiek, hain zuzen. Baina berreskuratze hori ez da hain erraza. Ez naiz ari egoera oso zehatzei buruz; behin Instituturantz nindoala olatu bat zubi gainetik pasatzen ikusi nuenean bezala, edo udako egun bero batean kaleko beste alde ikustea eragozten zuen barrikada erraldoi bat aurkitu nuenekoa; ez, tertzio arruntaz ari naiz.

Kaleak, esate baterako, egunetik egunera ez aldatzea espero da, nolabaiteko egonkortasunari eutsiz...; kontua da aldaketa mordoa izan dela herrian. Hemendik joan aurretik, horrelako eraldaketa batzuk ikusi izan nituen: hospitalillo/gaztetxea bota zuten, eta handik aurrera zonaldearen irudia erabat aldatu zen; koartelillo-liburutegiarena ere ederra izan zen...; Pekin ez zen hain urruti geratu edo, hobeto esanda, herriak bereganatzen bukatu zuen, eta Olibeteko gaileten esparru basatian bati-mendu erraldoiak eraiki zituzten.

Egun, txosnen Arenalean ez dago hondarrik, eta elizak, aldiz, denboraren joanak emandako berniz kutre eta ilun hura galdu egin du garbiketen ondorioz, bai baitirudi eliza bera dagoela hondarrez

egina; Biteri kalean, semaforoak hazi dira! OTA delako hori nire auzoan bertan ere ezarri dute, eta lehen niretzako berriak ziren Musika plaza edo Gernikakoa zaharkituak dira honezkero. Eta jendea, non sartu da ezagutzen nuen jende hura? Herriko kaleetako aurpegi guztiak berriak dira, ezezagunak. Tabernak goiz ixten dituzte, oso goiz, eta dabilen martxa zeharo desberdina topatzen dut.

Beste gauza batzuk berriz ez dira aldatu. Oroitzen naiz lagun batzuek Londresetik hona mahori bat ekarri zutela, hanka hutsik zebilen eta Tony zuen izena. Mutila, gure erreka barandaren kontra jarrita, harritura geratzen zitzaigun Papelearen karkaxei begira: inoiz ez omen zuen hain ur zikina ikusi. Ezta nik ere, egia esateko, munduan zehar asko ibili ez banaiz ere. Beno ba, hori adibidez ez da aldatu. Ahateak daude gure ibaian, hori bai, auskalo nola lortzen duten bertan bizirautea ahate edo mutante horiek.

Hala ere, nire oroitzapenak erabat subjektiboak dira, ez dirudite atso baten kontuak baizik: herria bizirik dago eta osasuntsu, antza. Herria, beraz, ez da hainbeste berritu, neu bai zahartu ordea.

Ez nau lotsatzen herria hortik zehar goraipatzea, txobinismo apur bat isurtzea, ze letxe, azken finean beti izan gara akonplejatu batzuk. Eta ez motiborik gabe. Asko eta asko nekatu dira gurea itsusia dela esaten, horrela, moztu gabe, nahiz eta haien herria edo hiria oraindik itsusiago izan; baina zer dakite horiek? Errepide jeneraletik ikusten dutena.

Informazio garaia hemen daukagunez, gure herri urbano industrial honek garaiz kanpokoari dagokion irudi erromantikoa hartuko du, batzuen baitan inoiz galdu ez duen irudia. Eta, zenbait urte barru, auskalo, agian galdutako itsasoa bera ere berreskuratuko dugu.